

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 452/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko apirilaren 23koa, hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko estatistikak egin eta garatzeari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) N° 452/2008 DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2008, relativo a la producción y al desarrollo de estadísticas sobre educación y aprendizaje permanente» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 145/227, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

REGLAMENTO (CE) N.º 452/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO
2008ko apirilaren 23koa
hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko estatistikak egin eta garatzeari buruzkoa
(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura ⁽¹⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Kontseiluaren 1994ko abenduaren 5eko Ebazpenean —Europar Batasuneko hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko estatistikak bultzatzeari buruzkoa ⁽²⁾—, Batzordeari eskatzen zitzaion estatu kideekin elkarlan estuan jardunez hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko estatistikak garapena bizkortzeko.

(2) Lisboako Estrategia suspertzea erabaki zen 2005eko martxoaren 22 eta 23an Bruselan egindako Europako Kontseiluan. Bilkura hartako ondorioetan haxe esaten zen: «Europak bere lehiakortasunaren oinarriak berri, hazkunderako eta produktibitateko dauzkan aukerak areagotu eta gizarte-kohesioa indartu egin behar du, jakintza, berrikuntza eta giza kapitalaren balorizazioa bultzatuz, bereziki». Hori lortzeko, oso garrantzitsuak dira Europarentzat herritarren enplegarritasuna, moldakortasuna eta mugikortasuna.

(3) Helburu horiek lortzeko, batetik, jakintzaren gizartearen eskakizunetara eta, bestetik, hezkuntza-maila eta enpleguaren kalitatea hobetzeko beharretara egokitu behar dira Europako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak. Hezkuntzari, prestakuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko estatistikek berebiziko garrantzia dute erabaki politikoak hartzeko garaietan.

(4) Etengabeko ikaskuntza funtsezkoa da langile trebatuak, gaituak eta moldaerazak garatu eta sustatzeko. 2005eko udaberrian Europako Kontseiluko Presidentetzak emandako Ondorioetan azpimarratu zen «giza kapitala Europaren aktiborik garrantzitsuenak» dela. Hazkunderako eta enplegurako jarraibide bateratuen bidez —Kontseiluak 2005/600/EE Erabakiaren bidez onartutako estatu kideen enplegu-politiketarako jarraibideak, adibidez ⁽³⁾—, lagundu nahi da Lisboako Estrategia aplikatzen eta etengabeko ikaskuntzarako estrategia orokorrak finkatzen.

(5) Kontseiluaren “hezkuntza-sistemen etorkizuneko helburu zehatzak” izeneko txostena onartu zen 2001eko otsailean, eta hamarkada honetan txosten horren jarraipena egiteko lan-programa, 2002ko otsailean. Biak ere aurrerapauso garrantzitsua izan dira estatu kideetako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea hobetu eta sistemak eguneratzeko hartutako konpromisoa betetzeko. Europako batez besteko errendimenduaren adierazleak eta erreferentziako mailak («erreferentzia-puntuak») koordinatzeko metodo irekiko tresnak dira, eta garrantzi handia dute «2010erako hezkuntza eta prestakuntza» lan-programaren barruan. 2003ko maiatzean, Hezkuntza ministroek aurrerapauso sendoa eman zuten 2010a baino lehen lortu beharreko erreferentziako bost mailak adostu zituztenean. Maila horietan, estatu-mailako helbururik ez finkatzeaz gain, ez da estatu kideetako gobernuak hartu beharreko erabakirik zehazten.

(6) 2005eko maiatzaren 24an, hezkuntza- eta prestakuntza-alarreko adierazle berriei buruzko Ondorioak onartu zituen Kontseiluak ⁽⁴⁾. Bertan, hezkuntza- eta prestakuntza-alarreko bederatzi esparru zehatzetan adierazle berriak garatzeko estrategiak eta proposamenak aurkezteko eskatzen zion Kontseiluak Batzordeari eta, hori egitean, estatu kideek beren hezkuntza-sistemaren antolakuntzan duten erantzukizuna erabat errespetatu beharra zegoela azpimarratzen zen; era berean, neurrien eragina zuten erakunde eta antolakundeei administrazio- nahiz finantza-karga neurrigaberik ez zitzaizela jasanarazi behar eta, aurrerapenak egiaztatu ahal izateko, beharrezko adierazleak ez direla ugaritu behar nabarmentzen zen.

(1) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko irailaren 25ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko otsailaren 14koa.

(2) C 374 EO, 1994/12/30ekoa, 4. or.

(3) C 205 EO, 2005/08/06koa, 21. or.

(4) C 141 EO, 2005/06/10ekoa, 7. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(7) Bestalde, 2004ko azaroan, lanbide-hezkuntza eta -heziketako Europa mailako lankidetzari buruzko Ondorioak onartu zituen Kontseiluak eta, erabaki zuen, aurrerapenak ebaluatu ahal izateko, lehentasuna eman behar zitzaizela Europa mailan lanbide-hezkuntza eta -heziketari buruzko estatistiken irismen, doitasun eta fidagarritasunari.

(8) Erkidego mailan alderatzeko moduko informazio estatistikoa eskuragarri izatea funtsezkoa da hezkuntzako eta etengabeko ikaskuntzako estrategiak garatu eta estrategia horiek martxan jarrita lortutako aurrerapenen jarraipena egin ahal izateko. Estatistikak egiteko, kontzeptu koherentez eta datu alderagarriez osatutako esparru bat hartu behar da oinarritzat, hezkuntzari, prestakuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko informazio estatistikoa biltzen duen Europako sistema bateratua sortzearen.

(9) Erregelamendu hau aplikatzeko garaian, aintzakotzat hartu behar dira estatu kideetako enplegu-politiketarako zuzentzarauetan aipatzen diren lan-merkatuan sartzeko arazoak dituzten pertsonak ere.

(10) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1552/2005 (EE) Erregelamenduarekin —2005eko irailaren 7koa, enpresetako lanbide-heziketari buruzko estatistikei buruzkoa⁽¹⁾— bat etorritik biltzen ditu enpresetako lanbide-heziketari buruzko datuak Batzordeak (Eurostat). Hala ere, esparru juridiko zabalagoa eratu behar da egiten diren eta egitekoak diren jarduera guztiak biltzen dituzten hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko estatistikak sortu eta garatzea bideragarria dela ziurtatzeko. Unescoren Estatistika Institutuarekin (UEI) eta Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako Antolakundearekin (ELGA) batera egindako ekintza baten barruan, ekintza horrekin elkarlanean diharduten estatu kideek hezkuntzari buruzko datuak bidaltzen dizkiote urtero Batzordeari (Eurostat), «UOEren datu-bilketa» delakoaren barruan. Horrez gain, hezkuntzari, prestakuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko datuak biltzen ditu etxeetan egiten diren beste inkesta batzuen bidez: Erkidegoko biztanleria aktiboari buruzko⁽²⁾ eta errentari eta bizi-baldintzei buruzko Erkidegoko estatistiken bidez⁽³⁾, eta haien *ad hoc* moduluen bidez, esate baterako.

(11) Hezkuntzaren eta etengabeko ikaskuntzaren alorreko politikak modu dinamikoan onartzen eta kontrolatzen direnez, eta etengabe garatzen ari den ingurune batera egokitu behar direnez, arautzen den estatistika-esparruak nolabaiteko malgutasuna izan behar du (mugatu eta kontrolpean dagoena), inkestagileei eta estatu kideei sortzen zaien karga kontuan hartuta betiere.

(12) Erregelamendu honen helburua, hots, arau estatistiko komunak finkatzea datu bateratuak sortu ahal izateko, estatu kideek beren kasa bakarrik lortzerik ez dutenez, eta helburu hori Erkidego mailan hobeto lor daitekeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioarekin bat etorritik. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez da helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago joaten.

(13) Erkidego mailako estatistika zehatzak sortzeko garaian, Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamenduan —1997ko otsailaren 17koa, EBko estatistikei buruzkoa⁽⁴⁾— finkatutako arauak bete behar dira.

(14) Datu pertsonalak babesteko eskubidea erabat bermatzen du Erregelamendu honek, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 8. artikuluan finkatutakoari jarraiki.

(15) Datu konfidentzialak igortzeko garaian, Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamenduan eta Kontseiluaren (Euratom, EE) 1588/90 Erregelamenduan —1990eko ekainaren 11koa, sekretu estatistikopean dauden informazioak Europako Erkidegoen Estatistika Bulegoari igortzeari buruzkoa⁽⁵⁾— finkatutako arauak bete beharko dira.

(1) C 255 EO, 2005/09/30ekoa, 1. or.

(2) Batzordearen 2104/2002 (EE) Erregelamendua, 2002ko azaroaren 28koa, Kontseiluaren 577/98 (EE) Erregelamendua —Erkidegoko biztanleria aktiboaren laginketa bidezko inkestaren antolaketari buruzkoa— eta Batzordearen 1575/2000 (EE) Erregelamendua —Kontseiluaren 577/98 (EE) Erregelamenduaren aplikazioari buruzkoa, hezkuntzako eta lanbide-heziketako aldagaien zerrendari eta 2003tik aurrera datuak igortzeko erabili beharreko haren kodeketari buruzkoa (L 324 EO, 2002/11/29koa, 14. or.)— egokitzen dituen.

(3) Batzordearen 1983/2003 (EE) Erregelamendua, 2003ko azaroaren 7koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1177/2003 (EE) Erregelamendua —aldagai objektibo nagusien zerrendari dagokionez, errentaren eta bizi-baldintzen inguruko Erkidegoko estatistikei buruzkoa (EU-SILC) (L 298 EO, 2003/11/17koa, 34. or.)— aplikatzen duena.

(4) L 52 EO, 1997/02/22koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatutako Erregelamendua (L 284 EO, 2003/10/31koa, 1. or.).

(5) L 151 EO, 1990/06/15ekoa, 1. or. 322/97 (EE) Erregelamenduak aldatutako Erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(16) Batzordearen 831/2002 (EE) Erregelamenduan —2002ko maiatzaren 17koa, Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamendua (datu konfidentzialak helburu zientifikoetarako eskuratzeari buruzkoa) aplikatzen duena ⁽⁶⁾— finkatzen dira Erkidegoaren esku utzitako datu konfidentzialak eskuratzeko baimentzeko baldintzak.

(17) Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin —1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari dagozkion eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituena ⁽⁷⁾— bat etorritz onartu behar dira Erregelamendu hau betearazteko behar diren neurriak.

(18) Eskumen batzuk Batzordearen esku uztea komeni da, honako hauek egiteari dagokionez bereziki: estatistiken aztergaia aukeratu eta zehaztea; estatistika horien ezaugarriak behar politiko eta teknikoetara erantzuteko; ezaugarriak banantzea; behaketa egiteko denbora-tartea eta emaitzak bidaltzeko epeak; kalitate aldetik bete beharreko betekizunak, izan beharreko doitasuna barne, eta kalitateari buruzko informazio-esparrua. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, funtsezkoak ez diren alderdi berriekin osatuz ere, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(19) 89/382/EEE ⁽¹⁾ Erabakiari jarraiki sortutako Estatistika Programako Komiteari kontsulta egin zaio, Erabaki horretako 3. artikuluekin bat etorritz.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

Erregelamendu honen helburua da hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko Erkidego mailako estatistikak sistematikoki sortzeko esparru komuna finkatzea.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

- a) «Erkidego mailako estatistikak»: 322/97 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluko lehen gidoian zehazten dira;
- b) «estatistikak sortzea»: 322/97 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluko bigarren gidoian zehazten da;
- c) «estatu bakoitzeko agintariak»: 322/97 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluko hirugarren gidoian zehazten dira;
- d) «hezkuntza»: ikaskuntza eragiteko komunikazio antolatua eta jarraitua ⁽²⁾;
- e) «etengabeko ikaskuntza»: ikuspegi pertsonal, zibiko edo sozial batetik nahiz lanerako ikuspegi batetik dakiguna eta gure trebetasun eta gaitasunak areagotzeko bitzita osoan zehar egiten ditugun ikaskuntza-jarduerak guztiak ⁽³⁾;
- f) «mikrodatuak»: banakako erregistro estatistikoak;
- g) «datu konfidentzialak»: 322/97 (EE) Erregelamenduan eta (Euratom, EEE) 1588/90 Erregelamenduan agindutakoarekin bat etorritz, dagozkion unitate estatistikoak bakarrik zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datuak.

3. artikulua

Esparruak

⁽⁶⁾ L 133 EO, 2002/05/18koa, 7. or. Azkenik 1000/2007 (EE) Erregelamenduak (L 226 EO, 2007/08/30ekoa, 7. or.) aldatutako Erregelamendua.

⁽⁷⁾ L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.).

⁽¹⁾ L 181 EO, 1989/06/28koa, 47. or.

⁽²⁾ Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuaren (HNSN) 1997ko bertsiorearen arabera.

⁽³⁾ Kontseiluaren Ebazpena, 2002ko ekainaren 27koa, etengabeko hezkuntzari buruzkoa (C 163 EO, 2002/07/09koa, 1. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamendu hau aplikatuko zaie hiru esparrutan sortutako estatistikei:

- a) hezkuntza- eta prestakuntza-sistemei buruzko estatistikak jasotzen dira lehen esparruan;
- b) etengabeko prestakuntzan parte hartzen duten helduei buruzko estatistikak jasotzen dira bigarren esparruan;
- c) hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko beste estatistika batzuk jasotzen dira hirugarren esparruan; hezkuntzak giza kapital aldetik dituen onurei eta dakartzan onura sozial eta ekonomikoei buruzkoak, adibidez, hemen sartzen dira, lehen eta bigarren esparruetan sartzen ez badira. Esparru horiei buruzko estatistikak eranskinean agindutako moduan osatu behar dira.

4. artikulua

Ekintza estatistikoak

1. Hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko Erkidego mailako estatistikak banakako ekintza estatistikoaren bidez osatuko dira, honela:

- a) estatu kideek hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko estatistikak bidaliko dituzte aldiro-aldi, lehen eta bigarren esparruetarako finkatutako epeetan;
- b) hirugarren esparrurako beste inkesta eta informazio estatistikoko sistema batzuk erabiliko dira, hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari buruzko aldagai eta adierazle estatistiko osagarriak lortzeko;
- c) erreferentzia-esparruei, kontzeptuei eta metodo estatistikoei buruzko arauak eta eskuliburuak garatu, hobetu eta eguneratuko dira;
- d) datuen kalitatea hobetuko da, kalitatea ziurtatzeko testuinguruaren barruan, ondoko helburuak lortzeko:
 - datuak egokiak izatea,
 - datuak zehatzak izatea,
 - datuak eguneratuta egotea eta garaiz iristea,
 - datuak eskuragarriak eta argiak izatea,
 - datuak beste datu batzuekin alderatu ahal izatea, eta
 - datuak koherenteak izatea.

Batzordeak kontuan hartuko ditu estatu kideek datuak biltzeko eta lantzeko eta kontzeptuak eta metodoak garatzeko dituzten baliabideak.

Bildutako datuei dagokienez, bereziki aintzakotzat hartuko da dimentsio erregionala, hala badagokio. Eta beharrezkoa denean, sexuen arabera banatuko dira datuok, sistematikoki.

2. Ahal den neurrian, UEIrekin, ELGArekin eta nazioarteko beste erakunde batzuekin batera jardungo du Batzordeak (Eurostat), datuak nazioarte-mailan alderagarriak direla ziurtatu eta esfortzuak ez bikoizteko, kontzeptu eta metodo estatistikoak prestatu eta hobetzeari eta estatu kideek estatistikak igortzeari dagokienez, bereziki.

3. Batzordeak (Eurostat) azterketa pilotu batzuk egingo ditu datu berrien behar handia dagoela ikusten den bakoitzean, datuen kalitate aldetik arazoak sortzen diren bakoitzean eta datuak biltzen hasi aurretik; eta estatu kideek azterketa horiek osatzea izango dute, nahi izanez gero. Dagozkion datuak biltzeko prozeduraren bideragarritasuna aztertea da azterketa horien helburua eta, horretarako, halako datuak eskuragarri izatearen abantailak alderatuko lirateke datuok biltzeak eta inkestagileek egindako lanak eragindako kostuekin. Azterketa pilotuak egiteak ez dakar *ad hoc* neurriak hartzea, ezinbestean.

5. artikulua

Mikrodatu pertsonalak igortzea

Erkidegoko estatistikak osatzeko beharrezkoa den kasu guztietan, estatu kideek Batzordeari (Eurostat) bidali beharko dizkiote egindako laginketatik ateratako mikrodatu konfidentzialak, 322/97 (EE) Erregelamenduan eta (Euratom, EEE) 1588/90 Erregelamenduan datu konfidentzialak igortzeko finkatutako xedapenekin bat etorritik. Igorritako datuekin unitate estatistikoak (pertsonak) zuzenean identifikatzerik ez dagoela ziurtatu beharko dute estatu kideek.

6. artikulua

Betearazteko neurriak

1. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituzte honako neurri hauek, hura osatuz. Neurriok, datuak bildu, igorri eta lantzeko ekonomia nahiz teknika aldetik egondako aurrerapenetara egokitze neurriak barne, 7. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik hartu behar dira, kalitate handiko datu-bidalketa bermatzearren:

a) behar tekniko eta politikoei erantzunez, esparru bakoitzean sartzen diren gaiak eta haien ezaugarriak aukeratzea eta zehaztea;

b) ezaugarriak banantzea;

c) behaketa egiteko denbora-tartea eta emaitzak igortzeko epeak;

d) kalitate aldetik bete beharreko betekizunak, finkatutako doitasuna barne; e) kalitateari buruzko txostenen esparrua. Neurriok betetzeko, dauden datuak nabarmen ugartu behar badira edo datu berriak bildu eta inkesta berriak egin behar badira, kostu-onuren azterketa batean oinarrituta hartuko da dagokion erabakia, neurriek ekarriko lituzketen onurak, estatu kideek ordaindu beharreko kostuak eta inkestagileek izango luketen karga kontuan hartzen dituen ondorioei buruzko azterketa zabal baten barruan.

2. 1. paragrafoan aipatzen diren neurrietan, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

a) esparru guztietan, neurriok hezkuntza-erakundeei eta pertsonari eragingo lieketen karga;

b) esparru guztietan, 4. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako azterketa pilotuen emaitzak;

c) lehen esparruan, UEIk, ELGak eta Batzordeak (Eurostat) sinatutako azken hitzarmenak, datuen kontzeptu eta definizioei, datuak biltzeko eta lantzeko formatuari, maiztasunari eta emaitzak igortzeko epeei buruz;

d) bigarren esparruan, 2005ean eta 2007an egindako "Helduen hezkuntzari buruzko inkesta pilotua"ren emaitzak eta ondorengo garapen-beharrak;

e) hirugarren esparruan, dauden datu-iturri guztiak zehatz-mehatz aztertu eta gero, Batzordean dauden datu-iturrien eskuragarritasuna, egokitasuna eta testuinguru juridikoa.

3. Behar izanez gero, eta horretarako arrazoi objektiboak emanez gero, salbuespen eta tarteko epe mugatuak onartuko zaizkie estatu kide bati edo gehiagori, 7. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako arautze-prozedurarekin bat etorritik.

7. artikulua

Komitea

1. Estatistika Programako Komitearen laguntza izango du Batzordeak.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da. 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan aipatzen den epea hiru hilabetekoa izango da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1-4. paragrafoak eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da.

8. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon emana, 2008ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARCIC

ANEXO

ÁMBITOS

Primer ámbito: sistemas de educación y formación1. *Objetivo*

La recopilación de datos para este ámbito tendrá por objetivo reunir datos comparables sobre aspectos esenciales de los sistemas de educación y formación, especialmente en lo que respecta a la participación en los programas de educación y la superación de los mismos, así como al coste y al tipo de recursos consagrados a la educación y a la formación.

2. *Objeto*

La recopilación de datos abarcará todas las actividades educativas nacionales, independientemente de la titularidad o la fuente de financiación de los centros que las imparten (pública o privada, nacional o extranjera) o los enfoques pedagógicos empleados. De igual modo, se recopilarán datos sobre todos los tipos de alumnado y todas las categorías de edad.

3. *Cuestiones cubiertas*

Se recopilarán datos sobre:

- a) el alumnado matriculado, incluidas sus características;
- b) alumnado de nuevo ingreso;
- c) los titulados y las titulaciones;
- d) los gastos de educación;
- e) el personal educativo;
- f) las lenguas extranjeras aprendidas;
- g) el número de alumnos por clase,

que permitan el cálculo de indicadores sobre los medios, los procesos y los resultados de los sistemas de educación y formación.

Los Estados miembros transmitirán información apropiada (metadatos), que describirá las particularidades de los sistemas nacionales de educación y formación y las correspondencias con las clasificaciones internacionales, así como cualquier divergencia entre los datos facilitados y las especificaciones de los datos solicitados y cualquier otra información que sea indispensable para la interpretación de los datos y la elaboración de indicadores comparables.

4. *Periodicidad*

A menos que se especifique de otro modo, los datos y metadatos se transmitirán cada año, en los plazos acordados por la Comisión (Eurostat) y las autoridades nacionales, teniendo en cuenta los últimos acuerdos entre el IEU, la OCDE y la Comisión (Eurostat).

Segundo ámbito: participación de los adultos en el aprendizaje permanente1. *Objetivo*

La encuesta para este ámbito tendrá por objetivo reunir datos comparables sobre la participación y la no participación de los adultos en el aprendizaje permanente.

2. Objeto

La unidad estadística será la persona y los datos cubrirán al menos el rango de edades comprendidas entre los 25 y los 64 años. En el caso de que los datos se recojan por medio de encuestas, deberán evitarse, en la medida de lo posible, las respuestas indirectas.

3. Cuestiones cubiertas

Las cuestiones cubiertas por la encuesta serán:

- a) la participación y la no participación en las actividades de aprendizaje;
- b) las características de las actividades de aprendizaje;
- c) información sobre las percepciones de los propios encuestados sobre sus competencias;
- d) información sociodemográfica.

La participación en actividades sociales y culturales se recogerá, asimismo, con carácter voluntario en forma de variables explicativas que puedan servir para un análisis en profundidad de los perfiles de los participantes y los no participantes.

4. Fuentes de datos y tamaño de las muestras

La encuesta se realizará por muestreo. Las fuentes de datos administrativos podrán utilizarse para reducir la carga de los encuestados. El tamaño de las muestras se establecerá basándose en requisitos de precisión, que no requerirán que el tamaño efectivo de las muestras nacionales sea superior a 5 000 personas, calculadas sobre el supuesto de un muestreo aleatorio simple. Dentro de estos límites, las subpoblaciones específicas requerirán unas consideraciones particulares de muestreo.

5. Periodicidad

Los datos se recopilarán cada cinco años. El primer año de aplicación será, como muy pronto, 2010.

Tercer ámbito: otras estadísticas sobre la educación y el aprendizaje permanente

1. Objetivo

La recopilación de datos para este ámbito tendrá por objetivo reunir datos comparables suplementarios sobre la educación y el aprendizaje permanente que sirvan de apoyo a políticas específicas a nivel comunitario no incluidas en los ámbitos primero y segundo.

2. Objeto

Otras estadísticas sobre la educación y el aprendizaje permanente versarán sobre los siguientes aspectos:

- a) la educación y la economía: estas estadísticas son necesarias a nivel comunitario para dar seguimiento a las políticas de educación, investigación, competitividad y crecimiento;
- b) la educación y el mercado de trabajo: estas estadísticas son necesarias a nivel comunitario para dar seguimiento a las políticas de empleo;
- c) la educación y la inclusión social: estas estadísticas son necesarias a nivel comunitario para dar seguimiento a las políticas en materia de pobreza, inclusión social e integración de los migrantes.

Para los aspectos antes mencionados, los datos necesarios se obtendrán de fuentes de datos estadísticos comunitarias existentes.
